

# -KO ez da (inolaz ere) -EN

JUAN GARZIA

## SARRERA

Ducla urte batzuetatik hona, arazoarekin batera, haren kontzientzia ere areagotu dela dirudi. Iritzien nolakoa alde batera utzirik, nonahi ageri da zalantza, eztabaida eta gogoeta. Ni ere gertatu naiz, nolabait, albotik bada ere, tirabira horren erdian (EHUko izendegiaren eztabaidan), eta, hortik tiraka, idatzirik aurkitu ditudan azterketa eta iritzi batzuk izan ditut gogoeta-aren akuilu.

Kasu batean, eta hortik abiatu nahi dut, iritzitik irizpen izatera ere iristen da kontua, nolabait, nahiz arau izateko asmorik ez duen noski. Hara zer erantzuten dion Euskaltzaindiaren/Euskaltzaindikoko gramatika-batzordeak AEK-ko hizkuntza-arduradunaren kontsultari ("Eusker-a", 1997, 326. or.):

*Euskal Herriko mapa ala Euskal Herriaren mapa? Agian Euskal Herri mapa?*

Egitura horien artean erabiliena, dudarik gabe, *Euskal Herriko mapa* litzateke (sic). Hori da erabili izan dena eta erabiltzen dena. Dena den, honek ez du esan nahi *Euskal Herriaren mapa* gramatikalki gaizki dagoenik.

Agian on egingo zion erantzun horrek galdegileari, baina argi gutxi ematen du halako egi-turen erabileraz.

Alde batera utzi nahi ditut hemen deklinabide-atzizkion alderdi formal hutsak eta hiz-kuntzalaritza espezializatuari dagozkion gorabeherak, eta semantika arruntari eman erabateko lehentasuna, praktikan horrek lagun baitiezaguke gehienik erabilerak zuzentzen. Jakina, ezin da bistatik galdu semantikak bere bi auzoekin dituen loturak: (morfo)sintaxiarekin, mutur batetik, eta pragmatikarekin, bestetik. Gatozen, baina, harira eta mamira.

## -ENEN ETA -KOREN FUNTZIO GRAMATIKALA

Zabal onarturiko kontua da ez dela aski egitura formalaren berri izatea esanahia zein izango den ziur jakiteko. Are gutxiago, noski, perpausetik isolaturik hartzen badugu haren osagai bat; eta, askoz ere gutxiago, atzizki soil bat. Semantikoki definitzekotan, bada, beren testuinguruetan definitu beharko dira atzizkion balioak.

Egia da, guztiarekin ere, hurbilketa orokor bat egin daitekeela, eta hipotesi baliagarriarik eratu, erlazio formal batzuk ezarri egituren artean. Beti ere, hiztunak bere baitan darabilen gramatika inplizituaren legeak esplizitatzea da helburua.

Kasurako, -EN atzizkia aise erlazioa daiteke (esanahi-baliokidetasunak baliatuz) kasu **ergatiboarekin**, **absolutiboarekin** eta **datiboarekin** (hots, kasu *gramatikalekin*: aditzak komunztaduraz markatzen dituenekin). Beste modu batera esanda: bestela aditzen *argumentu* nagusiekin adierazten diren esanahiak biltzen ditu -EN atzizkiak, izenei atxikiz argumentuok. Hiru kasuok *ordezteko* atzizki bakarra izateak berez dakar haiek baino anbiguoagoa izatea funtzio semantikoei dagokienez (agente/paziente bereizkuntzari dagokionez nagusiki, ikusiko dugu-nez).

Formaz, nolana ere, oraingoz behintzat, inork ez du aldeztu hiru kasuon hiru marka desberdinetatik sortua edo eratorria denik -EN atzizkia. Jakina, horrek ez du esan nahi erlazio hori existitzen ez denik, baina bai semantikaren mailako sistema abstraktuagoan kokatu behar dela, eta ez hitzen forma fisikoan. (Lotura formala aurkitzekotan, aiseago aurki daiteke -EN genitiboaren eta -N erlatiboaren artean, eta, beharbada, ZEIN galdetzailearekin, ez baitago batere urruti ZERENetik, eta hirurak ere funtzio berean erabiltzen baitira, hots, izenlagun modura. Genitiboaren balioak argitzeko, hain zuzen, erlatiboaz baliatu ohi gara, han ager dadin, bide batez, kasu formala: “gaztearEN eginbidea” = “gazteak dueN / gazteari dagokioN eginbidea”).

Beste atzizkiaren kasuan, berriz, eztabaidatxoren bat gora-behera, ados gara gehienok, oro har, kasu *gramatikal direlakootatik kanpoko* sintagmei erantzen zaiela -KO —aurretik kasu-marka izan (“etxeraKO”) zein ez (“gaurKO”)—, adizlagun funtziotik izenlagun funtziora aldatzeko. Beraz, terminologiak terminologia, eta zenbait aditzondoren kasua salbu, beste deklinabide atzizki bati erantzen zaion atzizkia dugu -KO, -EN ez bezala.

Orain zuzenean dagokigun kasu zehatzean, eztabaida formala dabil, bestalde, ea, NON/NOIZ sintagma deklinatuaren kasuan, bilakaera formal, euskararen historian fisikoki hala gertatuz hartu behar den -(c)AN atzizkiaren galera [etxeAN + -KO = etxeKO], baina funtsean ez du inork ukatzen, nik dakidala, erlazio garbia dagoenik NON/NOIZ eta NONGO/NOIZKO egituren artean.

## AUZIAK

-KO = elkarketa soila (= -EN mugagabea)?

### Tesiaren azalpena

Bada dioenik, edo iradokitzen duenik, badela, arruntaz gainera, beste -KO bat (pluraleko formarik ez lukeena, antza) bestelako funtzioa duenik; hots, “erlazio hutsa” adierazten duenik, edo, garbiago esateko, oker ez banabil: -KO hori gabeko egitura (hitz-elkarketa) ulertzen den bezalaxe ulertzekoa litzatekeenik (batzuetan behintzat). Alegia, eta barka adibide endogamikoak, “gramatikaKO batzordea” “gramatika(-)batzordea” ren sinonimoa dela peto-peto. Hori, baina, ez da, ene aburuz, deskribapenetik ateratzen den ondorioa, aurrez hutsetik ateratako zera des-

kribapentzat ematea baizik. Izan ere, "gramatikaKO batzordea" hori gramatikala dela frogatu beharko litzateke aurrena, eta ez dirudi gauza erraza, baldin eta semantika gramatikaren parte bada, bederen, hots, (morfo)sintaxi-osaketa zuzena aski ez bada; eta, bestela, gramatikala dela jorik ere, adiera horretan egokia dela frogatzea geratuko litzateke ("gramatikAREN batzordea" ere ez litzateke egokia, hitz-elkarketa ordezkatzeko, baina aski da hitz elkarketari bidea ixtea, "gramatika berriAREN batzordea" (ZEREN batzordea?: gai horri dagokiona; HURA azter/lantzen duena) ager dadin, eta ez, aukeran, "gramatika berriKO batzordea" (nekez har baitaiteke "gramatika berria", guztiz testuinguru markatu batean ez bada, alortzat). Beste aukera, jakina, "gramatika berriRAKO batzordea" litzateke, baina hori "hura azter/lanTZEKO" xedezkoaren kidea da, eta halakoak albo batera utzi ditugu hemen, inoiz -RA ezkutatua badute ere, adizlagun direnean batik bat ("etxe(RA)KO": NORAKO/ZERTA(RA)KO).

Alegia, nik uste, kontua ez da euskarazko halako -KO batzuek erdarara itzulita *DE + mugagabea* ematen dutela, eta, beraz, *generikotzat* jo behar ditugula, baizik eta, justu alderantziz (eta ez da mirari), erdarazko *DE + mugagabea* egiturak guretu beharrez, mugagabe absolutua halakoetan posible ez, eta singularraren formaz baliatu *nahi* izaten duela zenbaitek hartarako tradizioz ez den kasuetan ere. Eta zenbait hiztun-idazleren gramatika badaezpadako hori arautzat teorizatzeke arriskua dugula, deskriptibotasun aseptiko-itxurakoaren mozturpean.<sup>1</sup>

Oso oker ez banago, hitz-elkarketa ia automatikoki genitibo-egitura batekin parekatu nahi izatek dator, hain zuzen, okerbidearen puska bat bederen. Ez dugula etsitzen, alegia, badela hitz-elkarketarik, bere horretan baino emateko ez den ideiarik adierazten duenik, edo, bestela, parafraasi luze-bihurriagorik eskatzen duenik, edo egokitzapenen bat (formala edo/eta kontzeptuala)<sup>2</sup>.

## Tesiaren aldeko argudioez

Entzuna naiz, zentzu berean, argudio *praktikorik* ere, -KO nolanhiko horren alde: "Zuzenbide Fakultatea" diogunean eta batek, ongi aditu ez duelako edo, "ZER/ZEIN fakultate?" galdetzen duenean, "ZuzenbideKOa" erantzun behar omen genioke, hizkuntza ekonomiaren izenean, "Zuzenbide Fakultatea" luzeegi eta errepikatuegi sentitzen baita, antza.

Tira, "Zer partidu?" galdeturik "PilotaKOa" erantzutea beste litzateke hori (ez dut ukatuko hori ere halaxe entzunda nagoenik: nolako hiztunari, baina, hor ere erdararen "el DE pelota" kalkatu beharra baitzuen).<sup>3</sup>

1 Eztabaidaren hari nagusia, aurrekoak aurreko, Igone Zabalen ikerketa eta iruzkin-sorta guztiz interesgarri batetik dator (*Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*, 119-128 or.), eta hari albo-ohar eta emendakin batzuk egin dizkiote X. Alberdik (*Euskal estilo-libururantz*, 89-93 or.) eta P. Goenagak (" -EN eta -KO atzizkiez atzera", argitaratzeko) geroztik. Nik, hemen, puntu konkretu horretan dudak ikuspegi-desadostasunari baino ez dior helduko; funtsezkoa delakoan hala ere, praktikan.

2 Ez naiz ados, puntu horretan, bistan da, P. Petrirenaren iritziarekin (eta, haren arrasto beretik, *Egunkariak* hautatu zuen bidearekin), -KO automatikoki lehenestearen aldeko agertu baita. Berdin arinegi irudituko litzaidake, jakina, kontrako automatismoa. Atzizki bakoitzaren berezko semantikari eustea da bidea, errazkeriaz erdararen morroiago (*exonormatiboago*) bilakatzetik begiratuta.

3 Erdaraz ere, ez pentsa, gauza bera genuke, nahiz hitz-elkarketa bestelakoa eta guztiz urria den: "¿Qué hombre?" galderari nekez erantzungo genioke "El rana", "El hombre rana" esateko partez.

Arruntaz gainerako -KO atzizki bereziren bat definitzeko tentazio horrek badu beste euskarri bat, gramatikalari asko liluratu duena. Kasu horretan, nik neuk ere ez dut arazorik berezitasun hori onartzeko. Garbiago esanda, kasu horretan, beste -KO bat *dela* esango nuke nik (eta aski bistakoa dela hori, gainera):

bizar gorriKO / indar handiKO

Beste kasu bat dela bistakoa da, bai, NOLAKO galderari baitagokio eta ez NON/NOIZKO galderari<sup>4</sup> (halakoetan pluralen bat inoiz agertzea analogiaz esplika daiteke, ez baita batere ohikoa). Bestalde, eta NOLAKO horixe baita adjektibo kalifikatiboei dagokien galdera, izenondo baten baliokidea da maiz halako izenlaguna (P. Goenagak xeheki jorratu ditu egitura horren berezitasunak eta mugak):

gizon bizargorri / indartsu (indar-handi?)

Eta aski normaldua du euskal gramatikak alternantzia hori:

Kupida(rik) gabeKO gizona / gizon kupidagabea  
 gehiegi(z)KO ardura / ardura gehiegia  
 okerreKO ustea / uste okerra

## Hitz-elkarketaren berezitasuna

Galderen testarekin hasita gaudenez, ohartxo bat egitea komeni da, auziaren argigarri. Hain zuzen ere, izenlagunen artean, baditugu ZEREN/NOREN eta NONGO/NOIZKO (eta gainerako [kasu-marka] + KO) galdera zehatzagoei dagozkien egiturak aukeran, baina ZER/ZEIN (“zer/zein batzorde?”) galdera orokorragoari egitura horien artean bat aukeratu gabe (eta zenbataile/mugatzailerik gabe) erantzuten dion bakarra hitz-elkarketazko moldea da (“gramatika-batzordea”), hura aukerako denean (bestela, aditz eta guztiko moldera etorri behar da, hots, erlatibozko perpausera).

Bada horretan etsitzen ez duenik, eta elkarketa aukera bakar eta arazorik gabea denean ere -KO horretara jotzen duenik. Muturrenean, gure sukaldari izartsuaren hitzetik hortzerako bitxi hauen modukoak sortzen dira: “piperraKO mermelada”, “helatuKO dendan”, (berrikiago jasoa, idatziz: “TxarriKO txuleta”, “laneKO poltsa”)...

Interesgarria da hemen alemanaren kasua, non ia mugarik gabe onartzen baitira elkarketa konplexuak (grafikoki ere elkarri juntatuak, eskuarki). Mugatzailearen banaketa ez da euskararena bezalakoa (izen abstraktuak mugatzailerik gabe ohi doaz), baina honelako zerbait genuke *euskarazko alemanez*:

<sup>4</sup> Nolakotasuna adierazteko, beste edozein izenlagun-mota erabil daiteke, semantikoki pertinetea bada (“zilarrezko” (zerezko), “hemengo(-hemengo)” (nongo), “gure(-gure)” (noren)... baina espezializatu horretaz ari gara hemen, hots, (beste mugakizun batzuek gainera) azpian kasu-markarik ez duen eta (ustez) pluralik onartzen ez duen -KO horretaz. Batzuetan, lehia gerta daiteke; gure adibideko “gehiegiKO”/ “gehiegiZKO” horretan, kasurako (-Z atzizkiak mugagabe absoluturako joera du, beste kasuekiko salbuespenez, eta ondo dator, beraz, hor).

industriaingeniaritzairakasle

Preposizioz emateko orduan, ordea, *ez da genitibo tematikoa* erabiltzen (hots, irakaslearen “(irakas)gaia” adieraziko lukeena), baizik eta, *genitibo lokatiboa ez*, baina bai lokatibo arrunta (adizlagun zein izenlagun gisa balia baitaiteke, hizkuntza prepositiboetan):

irakasle IN (industria)ingeniaritza

Zalantza bera ibili da gurean, “lizentziatu” partizipioarekin, bi erabilerak onartzen baititu sintaktikoki:

Zuzenbidean lizentziatua (partizipioa aditz gisa adizlagunez konplementatua)

zuzenbideKO lizentziatua (partizipioa izen gisa izenlagunez konplementatua)

Nolanahi ere, azpian zinezko lokatiboa dagoela argiago erakusten du horrek, hots:

zuzenbideAN (irakasten dabilena) > zuzenbideKO irakaslea

Eta ez, zenbaitek nahi lukeenez, elkarren aldaera peto gisa:

zuzenbide-irakaslea < > zuzenbideKO irakaslea

[hori irakasten duena] < > [HORRETAN irakasle diharduena]

## Noiz -EN, noiz -KO?<sup>5</sup>

Osterantzean, elkarketatik kanpo, ezinbestekoa da hautua, eta horrekin ditugu lanak, goraxeago ere ikusi dugunez. Aski da, arazoa edo zalantza sor dakigun, ezkerreko osagaia izen soila ez izatea:

Talde-buru/ordezkar...  
Lan-talde(-AREN/-KO) buru/ordezkar...  
Batzuetan, oso kontu semantiko bereziek eragiten dute, antza, aukera. Hortxe bertan (eta asko dira halakoak), “buru(zagi)” bakarra denean (taldeak buru(zagi) (jakin) bat du>) “taldeAREN buru” aiseago agertuko da. Bestela, (taldean bada buru(zagi) bat (besteren artean)>) “taldeKO buru(zagi)” agertu ohi da. Berdintsu banatzekoak dira, nahasterik ezean, “eskolAREN zuzendaria” eta “eskolaKO arduraduna(k)”. Badu horrekin zerikusi zuzena -EN kasuak markatzen duen argumentua ISren barrukoagoa (*tematikoa*) izateak: “arduradunak” badira bere horretan zerbait (ZEREN arduradun diren aipatu zein ez), eta *gero* kokatzen ditugu, *zirkunstantzialkiago*, “eskolan”. Jakina: “eskolAREN arduradun/zuzendariak” direla adieraziz gero ere, besterik seinalatu ezean (“eskolaren *hemengo* arduraduna”), eskolan bertan kokaturik irudikatzen ditugu.

5 Hemen aipatuko ditugun kontu asko xeheago eta zehatzago jorratuak daude aipaturiko lanetan (zalantzak eta desadostasunak goiti-beheiti), baina geure haritzoz josi nahi dugu geure azalpen mugatuago hau.

Kontuz, hala ere: aipatu dugun bereizkuntzak ez du balio edozein hitzekin (kasuan kasukoa ikusi behar da). Esaterako, “lehendakari” hitzak (“buru” nahiz “zuzendari”tik gertu, baina aditzik gabea bere osieran) ez du onartzen ZEREN konplementurik. Bai, ordea, NOREN, eta, ohikoena noski, NONGO. “Ordezkar” hitzarekin, berriz, zerbait/norbaitEN ordezkar izatea da lehenik, eta zirkunstantzialagoa da gero nonbaiteKO ordezkar izatea. (Hala ere, ikusiko dugunez, analogiak erabat arruntu ditu dagoeneko “ikastolaKO zuzendari/ordezkar” usteltxoak).<sup>6</sup>

Beste batzuetan, berriz, bestelako bereizkuntza bidera dezake atzizki-desberdintasunak. Adibidez, ez dira gauza bera “munduKO bazterrak (paraje, lekuak)” eta “munduAREN bazterrak (azken mugak)”. Eta ildo bertsutik doa zenbaitek bederen egiten duen beste bereizkuntza hau:

AfrikaKO iparraldean (Afrika barruan: Marokotik Egiptoraino, kasurako)

AfrikaAREN iparraldean (Adiera batean bederen, Afrikatik (kanpo) noranzko horretan: Sizilia, kasurako)

Jakina, halako zenbait bereizkuntza ez dira (aurrekotik hasita) guztiz finko eta garbiak praktikan, baina, izan, badira, eta batzuk egunero baliatzen ditugu, ikusten ari garen moduan. Beste adibide adierazgarri bat “atari” hitzarena da. Zentzu irudizkoan (denborazkoa barne), -EN eskatzen du:

etorkizunAREN/cromenAREN atarian

Leku-adiera fisikoan, berriz, besteak dirudi lehen aukera:

etxeKO/jauregiKO atarian

Nolanahi ere, ez dira falta bestelako erabilerak, eta pentsa liteke ez ote den egiten hor ere, inoiz, nolabaiteko bereizkuntza (irudizkoetan ere ez da barnekotzat hartzen “ataria”: hartan sartzeke dago, artean, “zerbaiten atarian” dagoena):

jauregiKO atarian (ataria jauregiaren barnean kokatzen da, haren osagaitzat)

jauregiAREN atarian (haren ate urrean, kanpoan)

Nolanahi ere, adiera bereko (baina ikuspegi banatako) erabilera-aukera dela ematen du bestetan eta apika gehienetan. Honako adibidean, esaterako, non “egoitza” hitza ez baita aurrekoak bezain fisikoki irudikatzen (ausaz horregatik ez da hain zuzen ere jotzen kokapenezkora?):

egoitzAREN atarian / egoitzaKO atarian

Kontuz ibili beharra dago, bestalde, errezeta errazegi eta teoria teorikoegiekin, arriskua baitute —bestela, oro har, lagungarri direnean ere— finkaturiko erabilera egokiak desitxuratzeko, zabarkeriaz zein hiperzuzenketaz.

<sup>6</sup> Inoiz susmoa izan dut norbaitek berariaz bultzatzen ote duen atzizki bion nahastea, honelakoak berdintzearen:

Euskal HerriKO ordezkar/atzizki/historia // Euskal HerriAREN ordezkar/atzizki/historia

<sup>7</sup> Agirre Asteasuokoa “zure bizilekuAREN ataria” dio, baina “zure etxeKO ataria” lioke noski.

Kasurako, eta berariaz aipatzen ari garen beste batzuek gainera, aski aipatua da “osotasunazatia” erlazioa -ENen erabileraren irizpidetzat, baina gero hori interpretatzen ez da beti samurra. Esaterako, hiri handi bat barrutitan zein auzotan banatuta egon daiteke, eta “osotasunazatia” erlazioa postula daiteke, beraz, baina kokapenezko -KO dagokio halakoetan. Hain zuzen ere, leku-izenen kasuan, badirudi kokapenerantz lerratzen dela garbi lehia, -EN nahiz -KO zentzuz aukerako eta erreferentzia bereko direnean.

Erlazio bertsuan, baina denbora-kontu eta kontrako bidetik, “\*bigarren zatiKO amaiera” ETBko zenbait kirol-esatariren asmakeria tematia baino ez da, nahiz eta nolabaiteko kokapeneztat *ere* har litekeen, teorikoki, “amaiera” horrena. Hura zuzendu —edo orekatu— beharrez, bada haien artean “\*lehen zatiAREN laugarren minutuan” esaten duenik, osotasun baten (kasu honetan, “lehen zati”aren) zatitzat *ere* irudika baitaitezke minutuak noski, teorikoki.

Gauzak horrela (harritzeko moduko nahastea baitarabilgu), zuhurrago dirudi, sen galduaren lagungarri, galdera inplizituetara etortzea kasuan kasuko joskera egokiaren bila: ZEREN/NOREN // NONGO/NOIZKO. Bistakoa da zenbaiti *zaharkitu* edo *primitibo*egia iruditzen zaiela sistema (espainieraren gramatiketan aurkitzen ez zutelako noski), baina praktikotasun handikoa da, zinez, kasu gehienetan (gaztelaniaz, oraintsu hasi dira sistematikoki erabiltzen gramatikalaririk puntakoenak gure “elemento inquirido” xaharraren bidea): “NONGO amaiera” galdera bitxia dela ikusten ez duenak, esaterako, erremedio zaila du, eta nekez zentzatu edo onbidertuko da bestelako errezeta simple nahiz berezizkuntza teoriko sofistikatuz.

#### -KO sasikoaren arrakastaren arrazoi ustelen bila

Noraez horretan, eta aukera egiteko orduan, baditu nolabaiteko oinarriak aspalditxotik -KO atzizkiak (pluralezko zentzua tartean ez denean bederen) duen neurritz gaineko arrakastak.

- Erdarazko mugagabeak itzultzeko orduan, ezkutatua du -A artikulua, eta hala erdarazko mugagabe absolutuaren antzekoagoa *dirudi* (kontrakoa gertatzen da, kasurako, “baloiaren-gandik hurbil” esaten denean “baloitik hurbil” esan beharrean).
- Horrekin loturik, laburragoa ere bada (-e- epentetikoa behar ez duenean): -KO / -AREN.
- Hirugarrenik, eta ez hala ere garrantzi gutxiagokorik, ZEREN/NOREN egituraren berezko anbiguitasuna saihesten du (egile/jasale: “egunkariaren iragarkia”: egunkariak iragartzen du zerbait ala egunkaria iragartzen du norbaitek?; eta berdin “ikastolaren propaganda”)<sup>8</sup>.
- Kontsonantez amaituriko leku-izen propioen kasuan, -(e)N inesiboarekin berdinduta gertatzen da -EN genitibo: “Usurbilen etorkizuna” (ZEREN etorkizuna / NON etorkizuna).
- Aldez edo moldez leku edo alortzat har daitekeen edozeri automatikoki -KO eransteak abantaila dakar, aitor dezagun, erabiltzaile nagiaientzat (hortik, “gure herriKO izena” eta tanke-ratsukoak *normaltzeraino*).

8 “Afrikaren mapa” ere, ZERena zein NOREna izan daiteke, izena bietarako den ber.

Horiek guztiak, ordea, tamalez eragintsuak izanagatik, bistan da, ez dira gramatika jatorrari dagozkion arrazoiak, eta, aldez bederen, erdararen interferentzia zuzen nahiz zeharkakoari zor zaizkio (erdaraz guztiak dira berdin DE)<sup>9</sup>, eta gure gramatika senezkoaren ahulaldiari noski. (Aski da euskararen antzeko banaketa duen hizkuntza osasuntsuago bati begiratzea —alemanari, esaterako— bi moldeak nahastekoak ez direla garbi ikusteko).

### -KO berezien arrazoi jatorren bila

Eta zein dira, bada, gure gramatika propioaren arrazoi sanoagoak? Bada, abiapuntutik aipatu ditugunez gainera, segidan azaltzen ahaleginduko garenak, besteak beste.

Atzizkiok, bistan da, bi IS erlazionatzen dituzte. Gramatikalki, atzizkia daramana besteren mendeko da, haren osagarri (erlatibozko perpausak aditzez gabeturik laburtu balira bezala). Kasu gramatikal direlakoek zein gainerako *zirkunstantzialek* (adizlagunek), guztiok suposatzen dute aditzen bat, eta aditz inplizitu horren subjektu eta konplementuen forma eraldatuztat jo daitezke, oro har, -EN nahiz -KO atzizkiez osaturiko izenlagunak. Hortik aurrera, IS nagusiarren eta IS menderatuaren nolakotasunetik ateratzen dira adierak: bien konbinaziotik, alegia.

Nagusitik hasita, kasurik garbiena ardatz dena aditz batetik eratorritako ekintza-nominalizazioa denekoa dugu. Azpiko aditz horrek zer *argumentu* eskatzen edo onartzen dituen, eta araberrako menderatua agertuko da:

bonbaren leherketa (< “bonba lehertu”)

(“bonba-leherketa” abstraktuagoa da, ez baita irudikatzen bonba konkretu, espezifikorik)

Aditza argumentu bat baino gehiagokoa bada, hala ere, esan dugun moduan, anbiguotasuna sortzen da, eta testuinguruak edo situazio pragmatikoak lagundu behar digu zentzua erabakitzen:

klase ertainaren zapalkuntza (zapaldua ala zapaltzailea da klase hori?)

Mekanismoa berdina da nagusia aditz batetik eratorria ez den kasuan ere. Nagusia menderatuarekin semantikoki lotzeko orduan, erlazio tipiko(en)a adieraziko lukeen aditz inplizituak gobernatzen du halakoetan egitura:

lagunaren beldurra/lotsa/maitasuna (hark norbaiti diona zein norbaitek hari diona)

9 Hemen jorratzen ditugunak eta beste zenbait dira “de” gaztelaniaz. Zabalaren artikuluan datorren “gaztelaniAREN adibide” birziak, kasurako (bestela -Koren hain aldeko izanik egilea, guztiz harrigarria hor), lapsusa dirudi, zentzuak “gaztelaniaTIK (hartuta)KO adibide” edo eskatzen baitu (“un ejemplo (tomado) del castellano”). “GaztelaniaK (ageri) duen adibide” ez da ixurazko deus, eta, tematikoa jasaletzat interpretaturik, berriz, “gaztelania ilustratzen duen adibide” sintagma lekuz kanpo legoke hor semantikoki. Guztiok dugu halako lapsusen bat tarteka (nik behintzat bai erruz: ari ez dena bakarrik dago hutsetatik libre), eta ez naiz hori salatzen ari noski, baina adierazgarria iruditzen zait bere horretan, hain zuzen, guztion egoeraren adibide edo sintoma gisa: kontzeptualizazio-auziak sortzen zaizkigula etengabe, alegia, erdaratik eta bestela ere. Tira: ez ahal da izango oraingo nire hau lapsusik edo deskuidurik handiena!

Anbiguotasun kontu hori goiti-beheiti, testuinguru jakinean, ez da izaten arazo pragmatikorik menderatuak, kasuan kasu, aukeratu den argumentu funtsezko hori bil dezan -EN atzizkiaz:

Zuzenbidearen irakaskuntza (“zuzenbidea irakastea” ulertzen da, eta ez “zuzenbideak (zerbait) irakastea”)

Zuzenbidearen ikaskizuna (“zuzenbideak ikasteko ematen diguna”, eta ez “zuzenbideak ikasi behar lukeena”)

“Ikaskizuna”, hala ere, ez da “irakaskuntza” bezain ekintza edo jardun adiera garbikoa, eta eratorpen-atzizkien mikrosintaxi horrek askotariko bide semantikoak sortzen ditu. Egile-izenentara lerraturaz gero, esaterako, aski erlazio desberdinak eratzen dira:

?Zuzenbidearen irakaslea

Kasu horretan, “zuzenbide(-)irakaslea” da noski esapide aukerakoa (eta “\*zuzenbideREN irakaslea” mugagabe absolutua ez da gramatikala euskaraz). Agi danean, pretentziosoegitza jotzen du gure gramatikak inor ZuzenbideAren (guztiaren) Irakaslea (bakarra) izatea (“irakaskuntza” ren abstrakzio kolektibo-generikoan ez diogu aitzakiarik ematen antzeko esapideari). Pentsa, esaterako, “zuzenbidearen maisua” egingo bagenu (= “zuzenbidea *inork baino hobeto* irakasten/menderatzen duena”).

Izan ere, “irakaslea” (“irakaskuntza” ren aldean) indibidualizaturiko zerbait da (nahiz zentzu generikoan ere uler daitekeen), eta, beraz (eta segidako kontuetarako funtsezkoa da hori), nonbait koka daitekeen zer konkretu bat. Eta, koka daitekeenez, kokatu ere kokatzen dugu berehala (nolabaiteko *espazioan*):

ZuzenbideKO irakaslea

Kasu horretan, zinezko NONGO bat ez badugu —“Zuzenbide (fakultate)KO (ekonomia) irakaslea”, esaterako—, menderatuaren ardatz den izenaren kontzeptualizazioan bilatu behar dugu oinarria (baita “latineKO/ingeleseKO” erabiltzen denean ere):

Zuzenbide (gai-alor)eKO irakaslea

Halakoetan, bada, bi bideratik ematen dugu adierazpen pragmatiko bera, baina bi ikuspuntu desberdinetatik. Batean, irakasleak irakasten duen gaia da lehen osagaia, elkarketa soilez (“zuzenbide-irakaslea”), eta bestean, berriz, irakaslea zer alorretan irakasten ari den, kokapezko -KO arruntez.

Horregatik, eta -EN mugagabe absolutuaren faltan —“\*zuzenbideREN irakaslea”—, kokapenezko moldera jotzen dugu eskuarki hitz-elkarketa posible ez denean.<sup>10</sup>

10 Ikusi dugu gorago nola euskarak bezala jokutzen duen alemanak ere (semantika *unibertsala* eta hizkuntza bakoitzaren tipologia, sintaxi eta morfologia dira erabakigarriak halakoetan, eta komeni izaten da kidetasunak bilatzea).

## Izenen kontzeptualizazio aldakorra

Gutziz oker ez banago, kontzeptualizazio aldakorraren kontu horrek ematen digu beste giltzarri nagusia, zein atzizki erabili erabakitzeke orduan. Eta ez da gauza ezezaguna hori gure gramatikan; edonork daki, esaterako, “gobernu” hitza bi adieratan har daitekeela, eta horrek erabakitzen duela, perpausen zentzua ezezik, haien forma bera ere inoiz:

GobernuTIK iritsi zait isuna.

GobernuARENGANDIK ez nuen espero halakorik.

GHandia da gure auziarekiko paralelismoa da. Bigarren kasuan, *izaki* edo *ente* modura kategorizaturik dago gobernua:

GobernuN idatzi dute isuna(ren gutuna) / gobernuKO isun(-gutuna)

GobernuK erabaki du isuna / gobernuAREN isuna jaso dut!<sup>11</sup>

Orain arte bi adiera aipatu ditut, baina esango nuke bietako bat beste bitan banatzen dela. Izan ere, “GobernuKO” diogunean, haren egoitza fisikoaz gainera —“Gobernu-*etxea*”, alegia (“Udaletxea” ren erudian)—, *erakunde* abstraktuagoa ere hartzen dugu maiz erreferentzia eta kokalekutat. Horregatik, “Udal/GobernuKO bilera/agindu/erabakiak” esapide egokia da, kontuok erakunde horren alor-esparrukoak direla adierazi nahi den kasuan, nahiz erabakiok “Udal/Gobernu(-*etxe*)” fisikoan egin/eman/hartuak ez izan (eta “GobernuARENak” ere ez izan, erabat).<sup>12</sup>

## Nahasteak

Halakoetan dabilen nahaste erabatekoaz, dagoeneko aipatuez gainera, oraintsu irratian entzundako iragarkiaren amaierako auto-aipamen hauxe da adibide aproposa:

E. J. REN X SaileKO iragarkia (duzu hau)

“Iragarkia” nork egin den adierazi nahi bazen, eta hala dirudi, “X SailAREN iragarkia” esatea zegokion, noski. Errepikapenaren arbuio gaizki ulertu batek edozer eginarazten dio zenbait idazleri, baina ez luke aitzakiarik bere horretan atzizkiaren errepikapenak:

E. J. REN X SailAREN iragarkia

Hala ere “X Sail” hori E. J. RENa —hark (bere) duena— bezain E. J. KOa —erakunde horretan kokatua— denez, eta bigarren aukera dabilenez, ustez, estandarizatuen (esana dugu aukeran kokapenezkoa nagusitu ohi dela), justu eman denaren kontrako bidetik ematea zegoen, eta horixe zatekeen noski zuhurren eta egokien:

11 Aldakorrak dira noski kontzeptualizazioak denborarekin. Esaterako, “arima” eta “kontzientzia”, gauza bitxia oraingo ikuspegi-tik, lekutat kontzeptualizaturik ageri dira eskuarki gure tradizioan: “ArimaKO penak”, “KontzientziaKO kargua”...

12 “Udala” eta “Udaletxea” hobeki bereizten dira noski, “Gobernua” eta “Gobernua” baino, baina testuinguruak argitu ohi du esanahiarekin hitzaren kontzeptualizazioa. Bestetik, “Herriko *Etxea*” (edo “Kontzejua” nahiz “Aiuntamentua”) erabiltzen denean, balio-bikoiztasun bera dugu.

E. J. KO X SailAREN iragarkia (iragarkiaren *egilea* kokatzetik hasten gara: NON (NONGO) NORK (NOREN) ZER.

Egunkarian ere —*Egunkarian*— aurkitu dut beste erabilera harrigarri bat, askoren artean:

JudoKO EuskadiKO federazioa

Tira: ekonomiaren izenean salduko digute hori ere, orain arteko arrunt honen aldean abantaila dakarkigulakoan:

Euskadiko judo-federazioa (edo "Euskadiko Judo Federazioa" erakunde-izen ofizial gisa)

### -KO "termino markatu gabea"?

Badabil, izan ere, bat baino gehiago, -KO atzizki hori "termino markatu gabea" dela esaka (hots, itzul dezadan, gehiago zehazten ez bada: (ia?) nonahi eta edozertarako erabil daitekeela, -EN ez bezala), eta hauts horietatik ditugu gero biltzen lokatzok.

Ez dut bereziki baliatu nahi autoritate-argudioaz, baina hona nola zioen Mitxelenak, aspaldi, (ia) justu kontrakoa (markatua zerekiko markatutzat jotzen zuen egoki zehaztuz, gutxik bezala):

"Auzia bestetan datza: erabileran, alegia. Ez baitago beti argi eta garbi, noiz bata hautatu behar den eta noiz bestea, gorago atera ditudan adibideak zalantzen lekuko ditugularik (sic). Badirudi, horietan bederen, KOren aldeko joera agertzen dela: KOren aldekoa eta RENen aurkakoa.

Lehen galdera, ordea, besterik litzateke: zerk batzen ditu, elkarrekin aipatu ohi ditugunez gero, gure ahoan eta gogoan, bi direlarik?

Lehen erantzuna erraza dugu. Kasu baten eta bestearen izena ia beti, edozein hizkuntzatan, berbera da, zein bere emendailuz berezia ager badaiteke ere. Hori aski ez balitz, itzulpen kontua izan badaiteke, itzulpen berdina baldin badute, *de* erdaraz esaterako, nola ez dute zentzu berdina izango? maiz somatzen ditugun zalantza erabakigaitzak, eta *Orixe* plazara dugu lekuko, seinale nabari dira elkarren hurbiltasunaz.

Ezin ukatuzko ezberdintasuna badute, haatik, behar bezala ulertzen badugu: bizidun/bizigabeen artekoa. Lehia horretan REN da biziduna, markagabea halere, eta KO bizigabe bezain markaduna."

Kasu askotan, iradoki dugun moduan, posible eta aukerako dira bi erabilerak<sup>13</sup>:

InstitutuAREN bilera [< Institutua biltzen da / Institutuak bilera du]

InstitutuKO bilera [< 1) institutuan den bilera; 2) Institutu (izeneko erakunde horren esparru)an egiten den bilera]

1) adiera, bestalde, izena leku fisikotzat har daitekeenean bakarrik sartzen da lehian. Ez dira, bada, anbiguoak honelakoak:

EIMA/EA/Aurten BaiKO bilera [zein erakundetako bilera]

<sup>13</sup> Nire azalpenotatik garbi geratuko zen, dagoeneko, nire iritzian ez direla hainbeste kasu aukera biak paretsu dauden kasuak, eta, hala gertatzen denean ere, kontzeptualizazio desberdinak adiera (semantiko/pragmatiko) desberdinak inplikatzan dituela askotan.

Bai, ordea, beste hauen modukoak:

EIZIE/Auzo Elkarte/JaurlaritzaKO bilera [zein erakundetako bilera / nongo bilera]

Hala ere, hori ez da aski arrazoiz izaten beste moldera lerratzeko, non eta “bilera” horrek esanahi erabatekoagoa ez duen:

Jaurlaritza/EIZIE... REN bilera [erakunde horiek berak osorik biltzen direla adieraziz, formalki bederen, eta ez kide batzuk atal batean]

Horra berriro lehenago ere atzeman dugun kontua: erakunde jakinaren *baitan* bilera bat baino gehiago irudika daitezkeenean, kasuan kasuko partaide desberdinen artekoak, -KO auke-ratu ohi dugu bilera horietako bat izendatzeko, kokapenez: “TaldeKO bilera” (ikus, geroko, nola besterik den “talde-bilera”, hor ez baita “Talde” jakin bat irudikatzen). Erakundeak biltzen denean, *bere* bilera egiten duenean, -EN dugu adierazpide egokia: “TaldeAREN bilera”.

Kontuak kontu, ez dira bat edo bi era batera baino gehiagotara kontzeptualiza daitezkeen izenak: leku-izen arrunt guztiak, besteak beste. Hala ere, leku-adierazpide diren aldetik, askoz gehiagotan agertuko dira -KO atzizkiarekin -EN atzizkiarekin baino. Hortik, inertzia zozoz, muturrenean, “gure herriKO izena” eta enparauak (*askoz gehiagotan* ez baita noski, ez hurrik eman ere, *beti*). Hona, adibide modura, azken egunotan publikoki irakurri-entzun ditudan halako bi:

EuropaKO bihotzean

AtarrabiaKO eguna

Aski garbi ageri da erdarazko DE preposizio anbiguoaren baliokide okerrera jo dela hor. Leku-izen propioetan eragiten du bortizkien inertzia horrek, kokapentzat jotzeko ohiturak (NON/NONGO) ez baitio erraz uzten gero zenbait hitzuni, antza, izen horixe bera *entzetat* irudikatzen (ZER-NOR/ZEREN-NOREN). Izen arruntekin, berriz, (mugatzaileak baduke zerikusia), errazago kudeatzen da bitasun hori, batez ere izena leku-izen guztiz espezializatua ez bada (“herri”, “eskualde”...):

gorputzeKO gaitzak/energia... / gorputzAREN gaitzak/energia...

Nahaste nabarmena eragiten duen analogia burugabeaz gainera, gerta daiteke —eta gertatzen da, nik uste— analogiazko molde batzuk dagoeneko hizkuntzaren molde finko, berezko bilakatu izana; hots, azpi-arau moduko. Azpi-arau horiek (halakorik bada) mugatzea litzateke gure eginkizuna, eta ez oinarrizko berezikuntzak hankaz gora botatzea, nahasterako bideak aregotuz. Sánchez Ferlosiok dioena, alegia:

“Ésta es sólo la armazón desnuda del sistema, claro está, a la que luego se añaden variantes, factores complementarios o mediaciones contextuales, pero Varrón no puede reclamar para la anomalía “un día después” o “un día antes”, porque no son, en absoluto, “acuñaciones fijas” o “idiotismos, que escapan a la norma”, sino formas estrictamente producidas por la norma de un sistema complejo, rigurosamente formalizado bajo los fueros de la analogía.”

## Euskal HerriKO mapa eta Euskal HerriARENA

Eta —sentitzen dut, baina— Euskaltzaindiaren gramatika-batzordearen irizpena —hor goian ahantzixe utzi duguna, alegia— ez dabil guztiz urruti, nik uste, nahasbiderako joera hori zeharka bederen bedeinkatzetik, “Euskal herriKO mapa” “Euskal HerriAREN mapa” baino *naturalagozat* jotzean<sup>14</sup>. Besterik da ea esapiderik arruntena den, hala baita noski.

Zuzenean maparen kontu hori jorratu aurretik, hala ere, oraindik beste itzulingurutzko bat egin dezagun. Autoz, oraingoan. Izan ere, *gurean*, eta itxuraz batzordearen alde, ez da dudarik “kotxeke/etxeke giltza/ate/leioa(k)” esaten dugula, eta ez “kotxearen/etxearen giltza/ate/leioa(k)”<sup>15</sup>. Bi faktorek eragiten dute, nik uste, aukera horretan. “Kotxe” nahiz “etxe” izenen leku-adiera guztiz nagusi izatea, batetik, eta, bestetik, “ate”, “giltza”, “leioa” eta antzekoen konkretutasun, fisikotasun eta *kokagarritasunak*.

Kontraktik ere nabarmenaraz daiteke halatsu direla gauzak. Aski da, esaterako, “etxearen giltza” aipatzea: oso aukerakoa litzateke esapidea, hain zuzen, “etxe” hori ez leku fisiko baizik entzetat hartzen den kasurako; “giltza”, bide batez, sintaxi-egitura horretan, ez nahitaez burdin puska fisikoa, baizik etxe-ente hori zabalduko ligukeen zera litzateke, irudiz, hor.<sup>16</sup>

Askotan, ordea, ez dago halako joera nabarmenik egitura bataren ala bestearen alde, biak baitira, zein bere adieran, paretsu erabiliak:

HerriAREN/LezoREN arazoak (herriak dituenak: herri=ente)

HerriKO/LezoKO arazoak (herrian direnak: herri=leku)

Berriro diot: kasuan kasukoa erabaki behar da, oinarrizko adiera-banaketatik abiatuta. Esaterako, hortxe, “istilu” eta “kezka” hitzek, “arazo” ren kide samar izanik ere, ez dute portaera bera:

HerriAREN kezka

HerriKO istiluak

14 Zer ulertu behar da? Salbuespen, anomalia dela? Zeinena? Mapa hitzarena? Euskal Herriarena? Leku-izen propioena, leku-izen guztiena, izen guztiena? Ala arauaren arabera da, eta orokorra araua, eta, beraz, “Elizako maketa” ere naturalagoa da, ausaz, “Elizaren maketa” baino?

15 “Esaten dugu (dudarik gabe)” diot, baina aurki daiteke bestelako tradizio horretan ere, hala nola Jean Etxeparearen “etxeAREN ate/leioak” eta beste. Ildo berean, Patxi Petrirenak diostenez, Sunbilan-eta “kotxearen giltzak” erraten da erabat.

16 Berdintsu gertatuko litzateke, adibidez, “sarrera” hitzarekin, zentzu fisikoan hartuko bagenu “etxeKO sarrera” baigenuke, eta abstraktuan, berriz, “etxeAREN sarrera”. Bistakoa da kokapenezkoa dela arruntena aukeran, baina gogoratu Artzeren hura ere: “Usurbilgo ElizAREN hormak... haiEN zulo(e)tan...”. Izan ere, kontzeptualizazio zorrotzez, egokia da bereizkuntza: “ElizAREN hormak” (hura osatzen dutenak) / “ElizaKO paretak” (barruan kokatuak). Bestea ere, nola hartzen den: “hormek zuloak dituzte” > “hormEN zuloak” / “hormetan badira zuloak” > “hormetaKO zuloak”. Izan ere, larriagoak dira “hormEN zuloak”, haien *izaera* edo osotasuna mehatxatzen baitute (hormok erabat zulatuz, esaterako), beste “hormetaKO zulo” zirkunstantzialagoak baino. Berdin, eta harira dator adibidea, “euskal sintaxiKO arazoak” eta “euskal sintaxiAREN arazoak”.

Bi joskerak aukerako direnean, bestalde (edo halakotzat erabiltzen direnean), anbigua gerta daiteke zuzeneko hitz-elkarketa (nahiz berez elkarketarekin lotuago egon noski -EN -KO baino):

Herri-arazoak (herriARENak ala herriKOak?)

Jakina, aiseago, “arazo” ren gai edo errefentzia orokortzat har daiteke “herri” hitza (herri-arazoak = “*herriaren inguruko arazoak*”).<sup>17</sup>

### Hitz-elkarketatik atzizki bidezko sintaxira zer?

Batekoz beste, eta maizago, hitz-elkarketa iristen ez den puntuan, batzuetan ez dugu jakiten zein atzizkitara jo:

Ingeniaritza Eskola

?Ingeniaritza TeknikoKO (alor horretako) Eskola

??Ingeniaritza TeknikoAREN (horren, hori irakasten den) Eskola

?Arte EderrEN Fakultatea

???Arte EderrETAKO fakultatea

Zenbaiten ustearen kontra, *askoz ere* bakanagoak dira, hala ere, joskera arruntean, hitz-elkarketa -KO atzizkiaren semantikarekin lotzekoa den kasuak, -EN atzizkiarenarekin lotzekoa dena baino. Zehazkiago, eta berariazko azterketa baten zain, ausartzen naiz esatera hierarkia bat dagoela halakoetan, eta lehentasuna duela argumentu nagusiei (kasu *gramatikalei*) dagokien interpretazioak (hots, *tematikoak*) bestearen aurrean; hots, -EN atzizkiaren adierari zentzu egokirik hartzen ez zaionean jotzen dela, jotzekotan, bestera (kokapenezko zirkunstantzialera). Jakina, hori guztia, elkarketa eta deklinatuak halakoetan baliokidetzat har daitezkeen heinean; edo, bestela esanda, elkarketatik deklinabidezkoetara pasatu nahi edo behar dugun horretan.

Goiko adibidean, jakina, kokapenezkoa aukeratuko genuke: Ingeniaritza Teknikoko Eskola.

### Mapa hitzaren kontzeptualizazioa

Maparenera itzulirik, eta sinonimia kontuz ibiltzekoa dela oraintxe esan dugun arren, hone-lako nabarmenkerietara bultza dezake bat baino gehiago, lehenaz gainera, batzordearen irizpe-nak:

“Euskal HerriAREN irudia” gramatikala bai baina, haren partez, naturala, “Euskal HerriKO irudia” da (!).

Irudia, erretrato/potreta, mapa... guztiak dira, izatez, nabarmen, ZEREN (mapa) konplemen-tua eskatzen dutenak (“ZEIN/ZER mapa?” galdera orokorragoa zehaztuz gero).

Baliteke metatesi semantiko batek ere eragitea hor —baina hori ez da aski gramatika bat funtsatzeko— “mapaN” agertzen baita noski “Euskal Herria”, baina horrek “mapaKO Euskal Herria” emango luke, eta besterik da hori.

<sup>17</sup> Besterik da “herri” hitzaren berezko anbiguotasuna, leku zein *ente* izan baitaiteke.

Beste aukera bat, baina aukeran bihurriegia: “Euskal HerriAN kokatzen gaituen mapa” edo postulatzea.

“Euskal HerriKO mapa” esanez gero, teoria hutsean eta hitzez hitz, mapa hori NON den jakingo genuke, edo NONGOa den berez edo izatez, baina ez ZEREN mapa den, hots, zer irudikatzen duen mapa horrek. Jarri, bestela, pluralean: “hemengo mapak, bai; hemen eginak edo erabiliak, baina zerenak?”

Are bistakoagoa da hori, esaterako, “Euskal Herri oso” edo eginez gero: “Euskal Herri osoKO mapa”, aukeran, handitxoak litzateke erabiltzeko; “Euskal Herri osoAREN mapa”, berriz, aise kabitzekoa izan liteke esku-ahur txiki batean ere.

Hori esanda, hala ere: “Euskal HerriKO (bazterrEN) mapa” osaera alega daiteke oinarritzat, eta hartara ez legoke arazorik (jauzi hori fustifikatzea besterik). Izan, hala ere, zalantzan jar liteke hala den, ala analogiaren indarrak horretara ekarria (nahasbidez nahiz arrazoi ezkutuz):

Euskal HerriKO mendiak, ibaiak, itsasertzak, eskualdeak, hiriak, herriak, lekuak... >

Euskal HerriKO (horiek guztiak agertzen direneKO) mapa

Alegia, [leku-izen propio + -KO] egituraren nagusitasun eta inertziak *aldarazi* egin duela, antza, erabilera arruntean, “mapa” hitzarekin *espero izatekoa* den joskera (eta berdin “plano” rekin?). Hala dirudi, edo hala uste dut nik bederen. Begiratu ditudan testuetan bada adibide bikoitz bat, Aurelia Arkotxarena, ongi ilustratzen duena kontua:

1492koa den Martin Belhaimen globoAREN kartaren arabera egina den kopia

TernuaKO karta zaharretan

Aski izan dela, alegia, leku-izen propioa agertzea -KOra lerratzeko (jakina: “karta” = “mapa”). Profita genezake egokiera ikusarazteko nolako abantaila dakarkion, hor, -KOran erabilerak euskarari (ez dut iradoki nahi hori denik *anomaliaren* arazoia, baina). Pentsa ezazue ez dakigula “Ternua” leku- ala pertsona-izena den. Hala izatera, *egiletzat* har genezake “TernuaREN karta/mapa” esanda. Eta areago gertatuko litzaiyuke nahaste hori “Belhaim” izen propioaren kasuan (ZEREN ala NOREN mapa?). Beraz, seinalatzen ari garen eta Euskaltzaindiaren iritziarekin bat usadioak finkatua duen sintaxi-*anomalia* —edo, nahi bada, azpi-arau— hori (-KO erabiltzea halakoetan) halakotzat hartu behar da, baina kasu mugatu horretarako baino ez litzateke aplikagarri.

Hortik tiraka -KO atzizkiari nonahi sarrera ematea, berriz, desegokia da guztiz (ez diot halakorik leporatzen Euskaltzaindiari, baina arriskua dago irakurketa oker hori egiteko, eta egin ere egiten da, teoria okerreaz areagotuz praktika okerrak). Izan ere, Sánchez Ferlosiok gogorarazi digunez, gramatikaren oinarria analogia sistematikoa da, eta ez anomalia, eta, askotan, analogia-jokoen sofistiazioa ez ulertzetik dator anomalien zabalkundea. Eta kontuz ibili beharko genuke halakoetan.

Hala, mugatu dugun erabilera horretatik bestetara zabaldu nahi duten moldeak bitxi gertatzen dira, azpi-arauaren (*anomaliaren*) analogiaz aldatu nahi baitute arau orokorra<sup>18</sup>:

? inguruKO mapa

?? gure bihotzeKO mapa

Ustez, beste kontutxo bat ere badabil hor tartean. Izan ere, -KO atzikiaren “leku”tasuna markatuz, “fisiko”tasuna azpimarratu nahi da nolabait, batetik; eta, ifrentzutik, berriz, zentzu irudizko berezi batean erabiltzen da gero eta gehiago “mapa” hitza (“jakin beharreko erreferentzien bilduma” edo); “irudi” hitzak ere, grafikotasuna baino areago, alderdi morala edo adierazi ohi duen modu bertsuan, hain zuzen (orobat, berrikiago, “argazki” hitzak). Bi kontuok konbinaturik, balirudike “Euskal HerriAREN mapa” diogunean (goragoko “ExxeAREN giltza” irudizko haren ildoan) “Euskal Herria deritzon ente hori ulertzeko zerak” adieraziko genituzkeela (“mapa psikologikoa, kostunbrista, morala...”) baina esapide beraren adieretako bat baino ez da hori, berez. Dударik balego, beti genuke aukera argiago uzteko “Euskal HerriAREN mapa fisikoa/politikoa/geologikoa” dela aipu.

### EgunkariaKO zuzendaria eta RealAREN jokalaria?!

Ez dira arriskutsuenak, hala ere, batzordekoak. Lehengoan (beharbada halaxe darabil beti), interesatuak berak “EgunkariaKO zuzendaria” titulua erabiltzen zuela ikusi nuen, harrituxe. (Gero egiaztatu dudanez, ez da orain-oraingoa eta beraren-berarena erabilera, eta etxe horretako —eta etxe horren— Estilo Liburuan ere jokaera hori bultzatzen da).

Aski larria dirudi kontuak, alajaina, analogiak analogia, bai baita zuzendari bat (bakarra, ustez), baina ez baitakigu zer zuzentzeko kargua duen, eta, bide batez, egunkaria bera nork zuzentzen duen... Akaso “EgunkariaKO (hizkuntza[ren]) zuzentzaileak” jarri beharko dituzte “EgunkariaREN (han-hemengo) zuzentzaile”, haren zuzendari faltan<sup>19</sup>.

Jakina, antzeko nahaste-arazoak ekar ditzakete “orkestraKO zuzendari” edota “taldeKO entrenatzaile” gero eta ugariagoek, baina tira: edozer gauza hobea, noski, -EN atzikiaren *anti-naturaltasunaren* bekatuan erortzea baino! Atzo bertan entzuna, ez behin bai askotan: “TarrasaKO entrenatzailea”, Terrassa (futbol-talde)AREN entrenatzaileaz ari zirela, nongoa den goitibeheiti. Gogoia ematen du, hara, kontraerasoz, “taldeAREN jokalaria” esaten hasteko, edo “orkestraAREN bakarlaria”...

18 Adibideok oraingo idazleenak dira, eta ez dagozkio zinezko “NONGO (auskalo ZEREN) mapa” adierari. Kasu berdintsua dateke, lehenago ikusi dugun izenarekin, “hizkuntza biziETAKO irakaslea”, pluralera zabalduz singularrean normaldua dagoen bidea (“matematikETAKO irakaslea” ere entzuten da, “matematikAK” pluralazkoa harturik alortzat). Kasu horretan, aski da noski pluralaren zentzu generikoaz baliatzea, ZEREN berezko(ene)tik aldentu gabe: “hizkuntza biziEN irakaslea”.

Halako pluralak alortzat kontzeptualizatzeko eragozpen edo debekua (hiztun batzuek baino ez baitute jotzen horretara, eta bakan) izen abstraktuen semantikarekin loturik dago, eta izen *jarraituen* singularitasun/ez-zenbakarritasuna dateke gakoa.

19 Hau idatzi nuenetik gertatu direnak kontuan harturik, ez dakit sano hartuko den nire zirritxo hau, baina okerrago iritzi dior orain aldatzeari.

### Materia-izenaren adierazpide generikoa vs inespezifikoa (eta mugagabe absoluturik eza)

Orain artekoan huts handirik egin ez badugu, gune-guneko arazo bati zuzenean ekitea falta zaigu soilik. Kontzeptualizazioaz aritu gara tarteka, eta giltzarritzat jo. Kasu bat bada, hala ere, zeharka aipatu dugun eta auziaren erdian dagoena. Nik dakidala, ez da inoiz agertu orain hemen planteatu nahi dugun bezain gorri eta gordin, eta hauxe da: izen baten konplementuak haren argumentutzat haren *materia* adierazi behar duenean (ez ZEREZ osatua den, baizik ZER duen gai), zer joskeragatik? Materia hori izen soilez izendatzekoa denean eta zentzu inespezifikoa dagokionean, ez da dudarik: hitz-elkarketa:

Zuzenbide-eskola

Musika-irakaslea

Futbol-zelaia

Maitasun-kezkak

Inespezifikoa, diot, eta ez generikoa, tasun hori “zuzenbide” mugagabeari baino hobeki baitagokio “zuzenbidea (irakasten da)” mugatzailedunari (hots, mugatzailedunaren interpretazio bat dateke generikoa)<sup>20</sup>. Arazoa, hain zuzen, sistematikoa euskaraz, zera da: absolutibotik kanpo *-a* hori daraman ISk benetako mugatu espezifikoa zentzua hartzen duela (nahiz zentzu generikoan uler daitekeen gero, baina “zuzenbide” eta kideko izen abstraktuek berezkoa dute, besterik esplizitatu ezean, nolabaiteko generikotasuna, sintagma mugatua izan zein ez).

Hots, garbi esateko: “(se enseña) derecho (mercantil)”, arazo praktikoa handirik gabe ematen dugula euskaraz (aurreko horretatik “se enseña EL derecho (mercantil)” bereizi nahi izanez gero genituzke lanak), baina, erdarazko “(escuela de) derecho (mercantil)” inespezifikoa ordez, “escuela de EL derecho (mercantil)” esan behar dugula ezinbestean, hitz-elkarketa posible ez denean.

Eta, esan dezagun argi eta garbi, hitz-elkarketa bakarrik da gai zentzu inespezifikoa hori emateko. Hitz-elkaketa, edo parafrasi luzeago bat, non, erlatiboazko perpausuan, berriro agertuko litzaigukeen, absolutiboan, hala badagokio, *-a* generikoa (inespezifikoa faltaz, partitibora nahiz mugagabe absolutura jo ezean: “\*zuzenbideRIK/\*zuzenbide irakasten da”):

(merkatu-)zuzenbidea irakasten den eskola

Izan ere, -KO atzizkiak bederen ez du hor lekuri, *kontzeptualizazio horretan* (hots, hasieratik diogunez, kokapenezkoa da -KO, eta ez materiazkoa). Izatekotan, “ZEREN X (eskola/irakaslea/zelaia/kezkak) diren” litzateke galdera inplizitua goraxeagoko adibideotan, nahiz eta gero “(merkatu-) zuzenbideAREN/musikAREN/futbolAREN/maitasunAREN X” esapide

20 Halako kontuak zehatzago ikusteko, guztiz gomendagarria da, eta euskarari aski zuzenean aplikagarri, *Gramática Descriptiva de la Lengua Española* lan bikainaren lehen liburukia. Ez da haren beharrik, hala ere, Zabalen azalpen eta tesiaren aurka, “baserriKO produktuak” sintamaren azpian dagoen “baserria” “baserriAREN produktuak” sintamaren azpian dagoena bezain (ez gutxiago eta ez gehiago) generikoa dela ikusteko (testuinguru eta adiera batean), eta biak izan daitezkeela berdin espezifikoa (beste testuinguru eta adiera batean), “baserri” konkreturen bati buruz ari bagara. Besterik da hor ere kokapenezkoa lehenestea erabilera arruntean (“baserrian ekotziak”), *tematikoaren* aldean (“baserriak ekotziak”).

espezifikoezia baino ez izan aukeran (“\*(merkatu-)zuzenbideREN eskola” ez da noski gramatikala).

Kasurako, eta mugatuen adiera generikoa baliatuz, “behiARENa” da noski, “behi-esne/okela”. Eta “menestrak” ere “berdurARENak” dira “berdura-menestra” direnean. Bide hori hor dago: mugatu singularren adiera generikoaz baliatzea, zentzu inespezifiko hori zeharka (ez sintaktikoki) adierazteko (hala ere, “ogitarteko bat, patata-tortilARENa” aise erabiltzen badugu ere, “???patata-tortilAREN ogitarteko bat” guztiz gertatzen zaigu bitxia, genitiboaren beste adiera bat nagusitzen edo zaiolako materia-adierari).

Hain zuzen ere, horixe egiten dugu, halako eskrupulurik gabe, pluralekin (banakoa baino aiseago lerratzen da multzoa zentzu generikora):

Giza zientziEN eskola (“escuela de (LAS) ciencias humanas”)

Beste bide bat, teorian, baina adostasun zabala dago noski ezezko praktikoa (onerako zein txarrerako), hitz-elkarketaren legeak laxotzea litzateke<sup>21</sup>:

?Merkatu-zuzenbide eskola

??Amerikar futbol zelaia

Zilegi ez dena, hainbat tematu arren, erdarazko halako (*materiazko*) *DE* + *mugagabea* egiturak -KO *mekanikoz* kalkatzea da.

Eta adierazi beharra bete-betean *materia* ez denean ere, berdin, kokapenezko zentzuan harterik ez badago. Badira hainbat erreferentzia berezi, zeharkako eta abstraktu askoak batzuetan, elkarketak bai eta kokapenezkoak ematerik ez daukanak. Alberdik eta Goenagak berenera ekarritako Zabalaren adibide batean, esaterako, “foto de familia” esapiderearen baliokidetzat jotzen dira “familia-argazkia” eta “familiaKO argazkia”, baina bigarren hori “gramatikaKO batzordea” bezain gaizki moldatua da adiera horretan (orain arteko hiztunen gramatika inplizitua daukat neurritzat, ez ezein teoria), eta salatzen ari garen automatismo ustelera garamatza:

(erdarazko ia edozein) *de* =  
-KO (= hitz-elkarketa)

Horrek, hala ere, ez du esanahi, kasurako, “(merkatu-) zuzenbideKO eskola” gramatikaren eta semantikaren kontrakoa denik (“latineKO eskola” klasikoa hor dugu, eta “kimikaKO irakasle” modernoa ere berdin). Bai, ordea, beste kontzeptualizazio batean ulertzekoa dela. Kasu horretan, euskararen gramatika sanoan, ez da *materia* adierazten dena, (jakintza-)arloan baizik, hots,

21 Ez da hemen lekua hori eztabaidatzeko, baina badira arrazoiak nolanhiko elkarketa konplexuak ez onartzeko gure gramatikan. Besteak beste, eta apika behinena, mugatzaileak-eta ISren amaieran joatea.

*espazio* edo *esparru* bat, eta *hor*KO, alor *horret*AN diharduen “irakasle”, “eskola” nahiz “liburu”ak adierazten dira horrela.<sup>22</sup>

Zuzen bagaude, beraz, darabilgun auziaren alderik larriena (edo gakoetako bat bederen) ez da -KO nahiz -EN atzizkioi beroi dagokiena zuzenean, baizik eta (hitz-elkarketatik kanpo) kuantifikaziorik gabeko mugagaberik ez izatea (erdararekiko hutsunea). Edo, sakonagora jo eta hobeki esanda: (*materia*) erreferente inespezifikoa sintaxi arruntaz adierazteko eragozpen gramatikala (absolutibotik kanpo, bederen).

Badirudi batzuetan -askotan— esanahi pragmatikoki berdinerira irits gaitetzkeela -KO atzizkiaz baliaturik, baina orduan ere mugatu singularreko forma da -(e)KO, eta forma horren bezko semantikatik dugu (lekuzko adieratik), zuzen asko, esanahia [leku (fisiko) > alor (abstraktu)]. Ez da zertan -KO berririk asmatu<sup>23</sup>.

Besterik da, eta egokia oso, itzulpen-baliokidetasunaz baliatzea, eta, hala dagokionean, -KO atzizkira jotzea erdarazko *de* + *mugagabe* egitura batzuen ordainetarako.

Bestela, erdararen jostailuago bilaka gintezke oraindik:

Libro filosófico > **filosofia**-liburua

Libro DE **filosofia** > **filosofia**KO liburua

Euskaraz, ez da hori egituron banaketa, eta erdarazko molde biok berdin ematen ditu “filosofia-liburua”k (“liburu filosofiko/filosofiatsu” moldeak alde batera lagata); “filosofiaKO liburua”, berriz, alor nahiz ikasgai horretako liburua da. Jakina, “filosofiaKO liburua” “filosofia-liburua” izatea gerta daiteke sarri edo gehienetan, eta, batekoz beste, “filosofia-liburua” egokia izatea, orobat, “filosofiaKO liburu”tzat erabiltzeko, baina ez dira, izatez, gauza bera: Filosofiako logika-liburua eta Logikako filosofia-liburua.

## ONDORIOAK, LABUR

Saiatu gara azaltzen nola eusten zaion euskaraz -EN eta -KO atzizkien arteko bereizkuntza oinarritzekoari, eta nola hartzekoak diren, gure ustez, -Koren erabilera batzuk, zenbaiten iritziz -ENen eta elkarketaren funtzio bera betetzen dutenak (izen nagusiak adierazten duenaren *materia* adieraztea): atzizkiaren semantika eta izaera aldatzeke beste kontzeptualizazio-bide batetik emanak direla aldeztu dugu; hots, erreferente bera ikuspuntu desberdinetik adieraz daitekeela zenbaitetan atzizki biez, eta gramatikaren hutsune erlatibo bat (mugagabe absolutuarena) betet-

22 Beste bide batetik ere esplikatu litezke kasu batzuk: “filosofia(z)ko liburua”, “desonestidade(z)ko eskola”... Gaur egun ere, tradizioa ezagutzen (eta kontzeptua garbi ulertzen) ez duen norbaiti emanez gero itzultzera “cargo de conciencia”, baietz “kontzientziako kargua” edo “kontzientzia-kargua” errazago agertu, “kontzientziako kargu” klasikoa baino. Hala, ez litzateko harrizteko zaharrak izatea halako nahaste batzuk, erdarazko *de* askotarikoekin kontzeptualizazioa oker ulerturik.

23 Bada Zabalaren azalpenean puntu bat (behar bada lehenagoko teorizazioetatik dator) nire ustez *lapsus* handi samarra dena. Izan ere, “generiko” eta halako tasunak ez dagozkio noski atzizkiei, ISei baizik (edo orainago DetS deritzenei), eta, zehazkiago, haien erreferentzia-moldeari. -KO, bada, ez da, bere horretan, ez generiko eta ez ez-generiko (edo +/- espezifikoa), hori baita halakoetan auzi).

zera datorrela halakoetan, hain zuzen, -KO atzizkiak bideratzen duen kontzeptualizazio hori (dena delakoaren *materia* adierazi beharrean dena delako hori *alor* batean kokatzen duena, alegia).

Lekuzkoen adierazpide arruntaren analogiak hartaraturiko erabilera berezi bat ere finkatzen eta mugatzen ahalegindu gara (“mapa” hitzaren lekuzkotasunak eragina, antza, eta noski kideko kasuak izango dituen). Arruntzat jo ditugu, leku-izen propioekin, honelakoak:

PortugaleKO mapa (=PortugalEN mapa)

Baina zalantzazkoa da, oso, erabilera mugatu horren eredutik zabalago heda ote daitekeen araua (hots, “ZEREN mapa” “NONGO mapa” bihurtzea erabat, paradigma guztian):

?Amerikako Estatu BatuETAKO mapa

??(gure) inguruKO/bihotzeKO mapa

??? Europa osoKO mapa

???? Hiru lurraldeETAKO mapa

Beste konbinazio batzuetan ere aurkitu dugu -KOranzko lerraketa analogiazko hori, baina halakoak ez dira oraingoz nagusitu, lehia gaitzean badabilta ere, eta nahastetzat jotzekoak dira noski, sarriak izan arren:

\*OrkestraKO/EgunkariaKO/OsasunaKO zuzendaria/ordezkarria/entrenatzailea

Kontuz, hala ere, kontrako gehiegikerian ez erortzeko. Egokiak dira, noski, honelako koka-penezkoak:

TelebistaKO zuzendaria

baldin eta zuzentzen duena “telebista” bera ez bada (orduan “Telebistaren zuzendaria” baita noski). Hots, “zinemaKO zuzendaria” esapiderearen paretsua denean, ez baitute halakoek “zinema” edo “telebista” zuzentzen (tele)filmak baizik (eta non, zer alorretan zuzentzen dituzten adierazten du -KOk).

Kasu konkretu horretan (ikus berriro joko semantikoaren askotarikotasuna), adiera desberdina ematen diegu elkarketazkoei:

Zinema-zuzendaria (zinema alorrean diharduena, filmak zuzenduz)

Telebista-zuzendaria (telebistaren bat zuzentzen duena)

Eta “abesbatzaKO zuzendaria” (des)eredua nagusituko balitz, zer<sup>24</sup>? Bada, ni, berriro, Sánchez Ferlosioren izpirituarekin:

“... se tiende a decir en el habla corriente: “el día antes de la boda”, “el día después del entierro”, pero no siempre hay que someterse al principio “Vox populi uox Dei”, pues ese uso común amenaza la dualidad *ordinal/cardinal* en castellano...”

24 Hala gertatu da lider maileguarekin: jatorriko “lead(er)” [gida(ri)] ideia galdurik, “lehendakari” hitzaren joko sintaktiko berera bildu da [NOREN bai, baina ZEREN (lider) ez], kokapenezko konplementaziaz [partiduKO/sailkapeneKO (lider)]. Gure “buru”, “ordezkari” eta antzekoak, berriz, analogia ustelean erortzeko kinkan daude hiztun askorengan, baina cutsi egin behar zaio noski halakoetan NONGO/ZEREN (buru/ordezkar...) bereizkuntzari.

Jakina: guztiok huts egin eta egingo dugu tarteka, horretan eta guztian, baina ez da hori kontua. Kontua, hain zuzen, hizkuntzaren berezko gramatikak zer agintzen duen da, eta guk dugu hartara makurtu beharra, eta ez alderantziz.

### ERANSKINA

Alde batera utzi ditugu orain artekoan -KOn beste bi erabilera berezi, oso bestelakoak direlakoan, nahiz horietan ere lehia berdintsua dabilen erdarazko *de* dontsua euskaratzeko orduan:

- 1) "DonostiaKO hiria" eredukoa.
- 2) Magnitudeak inplikaturik dauden esapideak: "6 metroKO soka" / "6 metroREN alde"

1) sailekoek osaera semantiko guztiz berezia dute, honelako eragiketa logikoa islatzen baitute:

Hiria: (=) Donostia

Logika hutsez, bada, aposizioa litzateke hor erabiltzekoa, baina hizkuntzak bere arrazoiez aukeratzen ditu bere bideak, eta inguruko erromantzeek *de* preposizioa darabilte aspalditik horretarako<sup>25</sup>, eta euskarak lokatibotzat jo du moldea, normala denez (ikus gorago "mapa" hitzaren ingurukoa, leku-izenen kasu-erakarpen horretaz).

Leku-izenetatik kanpo, berriz, ez da batere finkatu euskaraz prozedura (oro har, hizkera berezi(egi)etan salbu), ezta denborazkoetan ere, hain hurbilekoak izanagatik:

Data: (=) apirilaren 3a > ?Apirilaren 3ko data

Hala ere, "NOIZKO data" hori "NONGO hiria" bezain ondo (edo gaizki) eraturiko egitura da. Kontua zera da: "apirilaren 3a" hain denez nabarmenki data, ez dugula sumatzen hura *etiketatzeko* beharrik. Are gutxiago (eta hor dago gako nagusietako bat), atzetik etiketatze, dataren datua eman ondoren.

fecha: (=) 3 de abril > (con) fecha de 3 de abril

data: (=) apirilaren 3a > ??Apirilaren 3ko *datatz* (= apirilaren 3an)

Gainerako kasuetan, berriz, are burugabeagoak lirateke, bistan da, erdarazko halako *de* en kalkoak. Saiatu, bestela, beren horretan ematen honelako metafora arruntak:

25 Nebrija ere kexu zen bere garaian berrikuntza horretaz: "Mas aquí no quiero disimular el error que se comete en nuestra lengua, y de allí pasó a la latina, diciendo: 'mes de enero'; 'día del martes'; 'hora de tercia'; 'ciudad de Sevilla'; 'villa de Medina'; 'río de Duero'; 'isla de Cález', porque el mes no es de enero, sino él mismo es enero; ni el día es de martes, sino él es martes; ni la hora es de tercia, sino ella es tercia; ni la ciudad es de Sevilla, sino ella es Sevilla; ni la villa es de Medina, sino ella es Medina; ni el río es de Duero, sino él mismo es Duero; ni la isla es de Cález, sino ella misma es Cález. De donde se sigue que no es anfibología aquello en que solemos burlar en nuestra lengua diciendo: 'el asno de Sancho'; porque a la verdad no quiere ni puede decir que Sancho es asno, sino que el asno es de Sancho."

el (cacho) cerdo de tu primo [tu primo: (=) un (cacho) cerdo]

las perlas de tus dientes [tus dientes: (=) perlas]

Kontu bera da, funtsean, aditz-izenetan oinarritzen den joskerarena, baina halakoetan, adiera hori garbi-garbi ageri denean, -EN moldekora jotzen dugu euskaraz, eta ez -KOra:

vivir ahí: (=) hermoso/riesgo > lo/el hermoso/riesgo de vivir ahí

hor bizitzea: (=) ederra/arriskua > hor bizitzearen ederra/arriskua

Izan ere, askotan, oso hurbil egoten da adiera hori beste honetatik:

Hor bizitzeak badu zerbait ederra / arriskua

Kontrako bidetik, xedezko adiera aukerakoa denean (asko eta askotan, beraz), -KO moldekora jotzen da, baina orduan desberdina da bi moldeen semantika:

Erortzearen arriskua [erortzea (bera) den edo erortzeak (berak) duen arriskua]

Erortzeko arriskua [norbaitek edo zerbaitek erortzeko duen arriskua]

Hala ere, pragmatikoki gauza bera adieraz dezakete askotan biek, eta nabarmena da hor, aukeran, euskaraz -KO moldekoetarako duen joera.

2) sailekoak ere, funtsean, ez dabilta batere urrun aurrekootatik:

longitud: (=) 7 metros > (de) 7 metros de longitud

presupuesto: (=) 23 millones > (con) un presupuesto de 23 millones

Euskaraz, solas *tekniko* modernoan, -KO akritikoa nagusitu da ia erabat halakoen kalkoz:

7 metroko luzerako

Hor gauza asko nahasten dira, ez baita bakarrik -KO bakoitzaren egokitasuna auzi. Bestek beste, dena IS trinko bakarrean biltzeko joera ere erdararen interferentzia da, eta nagusietakoa. Bestalde, aurreraxeago “data” hitzaren inguruan esan ditugunek balio digute hemen ere “luzera” eta antzekoetarako.

Izan ere, “7 metro” horiek “luzera” direla adierazteak ez du aparteko zentzurik, non eta “zabalera” rekin edo “sakontasun” arekin oposatu behar ez dugun. Jakina, “bar”, “joule”, “watio” eta gainerakoekin, ez da halako oposaketarik, finkoa baita horietako bakoitzak zer magnitude neurtzen duen. Azken aitzakia bat izaten da magnitudearen etiketa jarri behar izatearen alde: adjektibaturik agertzea, hain zuzen, magnitude izena, oposaketaren bat markatuz hor ere: “presio partziala”, esaterako.

Ez gara hemen sartuko azken hondorainoko xehetasunetan, halakoetan zuhur diren prozedurez, baina aski garbi dago gehien-gehienetan erredundante bezain trabagarri dela etiketatze esplizitura jotzea:

7 metroko (luzerako) soka [7 metro (luze) den soka]

3 litroko (kabidako/edukierako) lapikoa [3 litro kabitzen duen / dauzkan lapikoa]

NOLAKO molde arruntekoak dira geratzen diren egiturak, nahiz neurri zehatza adieraztekoak izan:

(nolako>) zenbat metroko soka?

“ZENBATEKO (soka)?” galdera ez da ageri sekula tradizio zaharrear, baina orain barra-barra erabiltzen da, diru kontuetan batez ere. Alegia, beste magnitude guztiak bazterturik, “ZENBAT diruKO” ulertzen dela noski “ZENBATEKO” hori ia beti. (Beste adiera arrunta sailkapen estandarren bati dagokiona da: “zenbateko/bosteko soka”, esaterako, kalibreen eskalan).

ZENBAT X(e)KO moldea, bestalde, erabat nagusituz joan da hogeigarren mendean, tradizioz -EN moldez emateko zirenak ia erabat baztertuz askoren hizkeran, honelatsuko bilakabidean:

LEHEN:

bidea/zorra: (=) 20 legua/marabedi

bidea/zorra 20 legua/marabedi da

20 legua bide (?20 leguaren bidea)

20 marabediREN zorra [zenbaten zorra; 20 marabediri dagokion zorra]

ORAIN (hiztun gehienentzat):

Bidea/zorra: (=) 20 kilometro/milioi

bidea/zorra 20 kilometro/milioiKOa da

20 kilometroKO/milioiKO bidea/zorra)

Ohartzekoa da nola ez den kontua izenlagunaren forma bakarrik (-EN/-KO bidea/zorra), baizik eta oinarritzko perpausean bertan ezarria dela -KO badaezpadako hori, bi puntuen ordezkio *de* guztiz berezia halamoduz kalkatuz:

La deuda es: 20 millones > La deuda es DE 20 millones

Ez dakit, hala ere, indarrrik ote dugun bilakabide oker horri kontra egiteko. Izan ere, hiztun egoki samarrek ere nahasten dituzte halako egiturak, are usadio jatorra oraindik garbi dagokkeen indarrean. Nabarmenik eta sarrienik, honelakoetan:

Zazpi tantoREN aldea >

\*Zazpi tantoKO aldea

Indarrak indar, gutxien-gutxienez, bereizkuntza funtsezko den kasua ez genuke utzi behar galdutzat:

Sei euroKO zizalak / Sei euroREN zizalak

Bereizkuntza hori onartzen duen askok, hala ere, ez du onartzen bereizkuntza bera egiterik beste honelakoetan:

Sei milioiKO aurrekontuak / Sei milioiREN aurrekontuak

Alegia, “seina miloiko aurrekontuak” eta “guztira sei milioi osatzen dituzten aurrekontuak” bereiziz. Ni ere ez naiz bereizkuntza horren zale, baina, beldur naiz, bestelakoak dira nire arrazoiak. Niretzat, hain zuzen ere, arbitrario da, bai, hor, -KO eta -ENen arteko bereizkuntza... baina ez bigarren molde hori asmazioa delako, baizik eta, alderantziz, bera delako erabilera zaharrari dagokiona (jakina, alferrik bilatuko duzu “aurrekontu” rik tradizioaren corpusean), eta bestea, berriz, gauza bera adierazteko orain ia erabat erabiltzen dena:

Sei milioiREN aurrekontuak (egitura zaharra) >

Sei milioiKO aurrekontuak (egitura berria)

Ez dagokit niri araua ematea, baina bai iritzia garbi: bestelako kontuetan egin dugun moduan, atzera bere lekua eman beharko genioke jatorrizko erabilera egokien horri. Astiro-astiro eta inori bekaturik egotzi ez traumarik sortzeke, baina bide horretatik jo beharko genuke, nik uste, lexikoan-eta ibiltzen ari garen bidearekiko koherentziaz.

Bideak bide, hala ere, arrasto batzuk eman daitezke, -EN galduxe horren erabilerari hobeki atzemateko:

- Halako joskeren buru den izenaren adiera abstraktua izaten da (kasu horretan duen zentzuan bederen): “alde” (“gorabehera...”), “zor”, “aurrekontu”, “bide” (= ibil-tartea), “zigalak” (= zigala-kantitatea)...
- Halakoekin ondoen ezkontzen den parafrasia honako hau izaten da: “Xi [nolabaiteko (sal)neurri bati] dagokion”.
- Batekoz beste adierazita: “halako (sal)neurriKO” egitura egoki lotzeko (tradiziozko erabilera-ari gara), nolabaiteko konkretutasuna izan behar du buru den izenaren adierak, zer konkretu horri egotzen baitzaio gero NOLAKOtasun hori (NOLAKO > ZER (SAL)NEURRI-TAKO).

Jakina, *belarria* (belarri landua) da azken epailea, baina kontuz zeri adi ipintzen dugun belarri hori, ez baita gauza bera berezko eta senezko hiztun egoki, *kutsatugabea* (!) eta azken orduko euskara nolabait teknifikatuan murgildurik bizi dena. Tradiziozko erabilera bermatzeko orduan, esan nahi dut. Eta hizkuntzaren berrikuntza *teknikoak*, bestalde —jakin beharko genuke dagoeneko horrenbeste—, aurrekoaren gaineko hobekuntza diren aldetik baino ezin dira justifikatu. Bestela, aldaketa baino ez dira: txarrerako aldaketa, definizioz; hizkuntzaren berezko moldeen kontra doazelako, hain zuzen.